

KIROL ENTITATEENDAKO 2008ko UDAL DIRU-LAGUNTZEN ARAUDIA.

1 KAPITULUA

1. Xedea

Oinarri hauen xedea da Bergarako edo Debagoienako herriren batean (betiere Bergaran kirol modalitate horretarako kirol entitaterik ez badago) egoitza duten eta bergararrekin diharduten irabazi asmorik gabeko kirol entitateei emateko udal diru-laguntzak arautzea.

2. Diru-laguntzen helburua

Diru-laguntzen helburua da Eskola Kirolean, Guztientzako Kirolean eta Kirol Federatuaren alorrean kirol-jarduerak antolatzen dituzten kirol entitateak diruz laguntzea.

Denboraldiak bi urte hartzen dituen kasuetan, diruz lagunduko direnak urte horretako denboraldi zati handiena eta aurreko urteko txikiena hartuko ditu. Horrela ez den kasuetan, urte naturala denboraldi bezala kontsideratuko da.

3. Finantzazioa

Araudi honetako diru laguntza finantziazioa Udaleko urteko aurrekontuetako 482.452.01.01 partidana jaso da eta 2008 urtean, 104.000 €-ko kopurua du. Hortik 60.000 euro egituraketarako diru-laguntzetara bideratu da eta gainontzeko 44.000 euroak izaera bereziko edo noizean behingo kirol-jardueretara. Dena den, aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren izaera bereziko edo noizean behingo kirol-jardueretarako erreserbatutako dirutik zatiren bat sobratuko balitz, egituraketarako diru-laguntzetarako erabiliko da.

4. Diru-laguntza motak.

Udalak bi diru-laguntza ildo izango ditu.

1. Kirol entitateen egituraketarako.
2. Kirol entitateek antolatzen dituzten kirol jardueretarako: izaera berezikoak edota noizean behingoak.

5. Eskaerak egiteko bete beharreko baldintzak orokorrak.

Diru-laguntza eskatzen duen kirol entitateak ondoko baldintzak bete beharko ditu:

- a. Bergarako edota Debagoienako herriren batean egoitza izan eta **bergararrekin diharduen irabazi asmorik gabeko kirol entitatea izatea.**

Debagoienako herriren batean egoitza dutenak soilik Bergaran kirol modalitate horretako kirol entitaterik ez badago.

- b. Indarrean dagoen legearen arabera eratuak eta **dagozkien erregistroetan erregistratuta egotea.**
- c. Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 13. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan adierazitako diru-laguntzak jasotzeko debeku-egoeretakoren batean ez egotea.

Ezingo dute Udalaren diru-laguntzarik lortu jarritako baldintzak ez betetzeagatik behin betiko erabaki bidez zigortutako kirol entitateek. Debeku horrek bi urteko iraupena izango du Udalak kirol entitateari jakinarazten dion egunetik kontatuta.

Bestalde, ezingo dute diru-laguntzarik lortu, dirua itzultzeko tramitazioaren ondorioz, diru-laguntzak lortzeko eskubidea galdu duten entitateek ere, erabakian zehazten den epea amaitu arte.

6. Eskaerak egiteko aurkeztu beharreko dokumentazio orokorra.

Eskaerak egiteko edozein kasutan "I ERANSKINA. *kirol entitateen diru-laguntzarako eskabide orri orokorra* " dioen inprimakia aurkeztu behar da. Horrekin batera, eskatzen den diru-laguntzaren arabera "II ERANSKINA. *kirol entitateek egiturazko diru-laguntzetarako bete behar duten eskabide orria* " edota "III ERANSKINA. *kirol entitateek izaera bereziko edota noizean behingo kirol-jarduerak antolatzeke diru-laguntzetarako eskabide orria* " aurkeztu beharko da ondoren zerrendatzen den dokumentazio honekin guztiarekin:

- a. **Identifikazio Fiskaleko Kodearen** fotokopia.
- b. Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarteen eta Erakundeen Erregistroan **izen-emate ziurtagiria, eratze-akta, estatutuak** eta zuzendaritza batzordearen osaketa eguneratua.
- c. Jarduera Ekonomikoen Zergako altaren fotokopia edo haren salbuespena ziurtatzen duen agiria.

- d. Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak, eskatzen den diru-laguntza 3.000 eurotik gorakoa bada, eta, bestela, entitatearen ordezkariaren zinpeko aitortza.
- e. Dagokion bankuak edo aurrezki-kutxak emandako agiria, **kontu-korrontea eskaera egin duen entitatearena dela ziurtatzeko.**
- f. Entregatutako datuak **egiazkoak direla ziurtatzeko zinpeko aitortpena.**
- g. Dagokion bankuak, aurrezki kutxak edo aseguru-etxeak igorritako agiria eskaera egin duen entitateak **urte horretarako erantzukizun zibileko asegurua egina duela** eta honek antolatzen dituen jarduerak estaltzen dituela ziurtatuz.
- h. Diru-laguntzen kudeaketaz kirol entitateetik arduratuko den pertsona erantzulearen izen-abizenak, elkartearekin duen harremana justifikatzen duen agiria, harremanetarako telefonoak eta Udaleko jakinarazpenak bidaltzeko helbide zehatzak.
- i. Beste erakunde eta organismo batzuei egindako diru-laguntza eskaeren zein jadanik jasotako diru-laguntzen gaineko zinpeko aitortpena eta diru-laguntza jaso bada, agiriak.
- j. Zinpeko aitortpena, dioena kirol entitatea zein ordezkaria ez daudela, azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 13. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan adierazitako, diru-laguntzak jasotzeko debeku-egoeretakoren batean.

2. KAPITULUA.

KIROL ENTITATEEN EGITURAKETARAKO DIRU-LAGUNTZA

7. Kirol entitateen egituraketarako eskaerak egiteko agiriak.

Aurreko puntuan adierazi den bezala, diru-laguntza ildo honetako eskaerak prestatu den inprimaki ofizialetan (inprimakia Agorrosin Ekintza Gunean edota www.bergara.net helbidean egongo da) aurkeztu beharko dira, ondorengo dokumentazioarekin batera:

- a. Denboraldiko kiroletan, 2007/08 denboraldiko jardueraren **kirol-memoria**. Urteko denboraldia duten kiroletan, berriz, 2008ko kirol memoria. Memoria horrek, gutxienez, atal hauexek bilduko ditu:

- a. **Jardueraren azalpen-memoria.**
 - b. **Federatutako kirolarien zenbakidun zerrenda;** haien adina, sexua, eta bizilekua adierazi beharko dira. Dagokion federazioak emandako kirolari horien zerrenda ere gehitu beharko da.
 - c. **Teknikarien zenbakidun zerrenda,** federazioan indarrean dagoen lizentzia dutenena; haien titulazioa, sexua eta bizilekua adierazi beharko dira. Horretarako, teknikarien federazioko lizentzia eta tituluaren fotokopia ere gehitu beharko dira. Horrekin batera eta dagokionean, teknikari bakoitzaren euskara gaitasuna ziurtatuko duten ziurtagiriak.
 - d. Klubeko **bazkide kopurua** eta klubari hileroko edo urteroko ordaintzen dioten **kuota.**
 - e. Aukeran, Udalarik laguntzeko asmotan, kirol entitateak lagungarritzat jo ditzakeen beste edozein agiri.
- b. Kasuan kasuko eta kirol errealitate bakoitzaren arabera, 2007-2008 denboraldiko edota 2008 urteko **memoria ekonomikoa.** Memoriak ondokoak izan beharko ditu, gutxienez:
- a. **Gastuen zerrenda** bere fakturen aurkibidearekin, zein gasturenak diren esanez. Gastuak oraindik burutu ez direnean, aurrekontua.
 - b. **Diru-sarreraren zerrenda.** Bertan ondo bereizi jasotako diru-sarrerak eta horien finantziario-iturriak.
 - c. Entitateak 2007/2008 denboraldirako edo urtekoa denean 2008rako, dituen diru-laguntzen aitorpena. Gainera, beste erakunde batzuei eskatutako laguntzen berri eman beharko da, nahiz eta diru-laguntza eskatzeko unean ez jakin deialdi horretan emango duten ala ez.

Aurkeztutako ziurtagiriek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

1. Klubaren, erakundearen edo elkartearen identifikazio argia.
2. Kontratistaren edo hornitzailearen identifikazioa.
3. Fakturaren data.
4. Hornidura edo zerbitzua beharrezko egin duen jarduera.
5. Horniduraren edo zerbitzuaren deskribapena.

Udalak ez ditu onartuko ondoko gastu eta gastuen agiriak justifikazio gisa:

- Klubaren, erakundearen edo elkartearen barneko administraziorako eta antolakuntzarako gastuak.
- Ostalaritzako zerbitzuetan egindako bazkarien, afarien edota bestelakoen gastuak, diruz lagundutako jardueran parte hartu dutenen gastuak salbu. Ez dira onartuko jarduera antolatu dutenen gastuak.
- Kirol entitate barruko ohar eta agiriak.

8. Kirol entitateen egituraketarako diru-laguntzetarako irizpideak.

Honako hauek dira eskaerak baloratzeko irizpideak eta puntuazioak:

1. Federazioetako kirol-lizentziak. Ondoren jasotzen den bezala baloratuko dira:
 - a. **18 urte arteko kirol lizentzia federatu bakoitzeko puntu 1.**
 - b. **18 urtetik gorako (berau barne) eta aisialdiko kiroleko lizentzia federatu bakoitzeko, 0,25 puntu.** (Araudi honen aplikaziorako, aisialdiko kirolak izango dira ehiza-arrauna, zikloturismoa, mendizaletasuna, urpekaritza eta kirol batzordeak hala adierazi ditzakeen kirol modalitateak).
 - c. Goiko puntuazio-sistemei honako zuzenketa koefizienteak aplikatuko zaizkie:
 - Emakumezko lizentzia federatu bakoitzeko, x 2. (hau ez da aisialdiko kiroleko lizentziatarako baliagarri izango).
 - Eusko Jaurlaritzako Euskal Kirolaren planean dauden herri kirol, euskal pilota edota arraun lizentzia federatu bakoitzarengatik, x 2.
 - d. Kirol entitatearen Eskola Kirol lizentziak lizentzia federatuak balira bezala puntuatuko dira.

Guztira, gehienez, 450 puntu lortu ahal izango dira.

2. Kirol entitateak bere barruan izan ditzakeen **kirol edo aitortutako kirol modalitate bakoitzarengatik** 10 puntu. Puntuazio hau ez da aplikagarria izango entitate bereko sail edo modalitate bakoitzak diru-laguntzak bere aldetik eskatzen baditu.
3. Kiroleko Kontseilu Gorenak (Comite Superior de Deportes) edo dagokion federazioak emandako eta indarrean dagoen lizentzia duen **entrenatzaile titulu** bakoitzeko:

- a. Oinarrizko entrenatzaile (begirale) bakoitzeko, 2 puntu.
- b. Maila erdiko kirol entrenatzailea, 5 puntu.
- c. Goi mailako kirol entrenatzailea edo TAFYD, 7 puntu.
- d. Jarduera Fisiko eta Kiroletako Zientzietan lizentziatu bakoitzeko, 10 puntu.
- e. Teknikari bakoitzeko puntuazioa bikoiztu egingo da, baldin eta hauetako euskara titulazioetako bat dutela egiaztatzen bada: EGA, 3. HE, Hezkuntzako 2. HE edo Hizkuntz Eskola Ofizialeko pareko titulua. Euskaraz diharduten eta titulaziorik ez duten entrenatzaileek, nahi badute, Udaleko Euskara Zerbitzura jo ahalko dute, euren maila egiaztatzeko. Entrenatzaile bakoitzeko titulu bat bakarrik baloratuko da (puntu gehien dituen).

Guztira atal honetan gehienez 40 puntu lortu ahal izango dira entrenatzaile guztien puntuak batuta.

4. Bazkide-kopurua eta bazkide bakoitzeko diru-ekarpena.

- a. Bazkide kopuruaren arabera puntuazioa:
 - 50 bazkide baino gutxiago, 1 puntu.
 - 50 eta 99 bazkide artean, 3 puntu.
 - 100 eta 249 artean, 6 puntu.
 - 250 baino gehiago, 10 puntu.
- b. Bazkide bakoitzeko kuota:
 - Hilean 6 € baino gutxiago, 5 puntu.
 - Hilean 7 € eta 12 € artean, 10 puntu.
 - Hilean 12 € baino gehiago, 20 puntu.

Guztira gehienez 30 puntu lortu ahal izango dira.

5. Urteko ekonomia-memorian agertzen den diru-balantzeko diru-sarrerak enpresa edo entitate pribatuetako jatorria duten (babesa edo laguntzak) kontuan hartuko da. Horretarako sarrera horiek diru-sarrera osoarekiko diren %aren arabera puntuazio bat aplikatuko da. Zehazki ondoren jasotzen den bezala baloratuko dira:

- a. Diru-sarreraren % 10 arte, 0- 5 puntu bitartean.
- b. Diru-sarreraren % 10tik 20ra arte, 5-10 puntu bitartean..
- c. Diru-sarreraren % 20tik 40ra arte, 10-15 puntu bitartean.

- d. Diru-sarreraren % 40 edo hortik gora, 15-50 puntu bitartean.

Guztira gehienez 50 puntu lortu ahal izango dira.

Puntuaren balioa honela kalkulatu da: Kirol entitateek lortutako puntu guztien batuketa egingo da eta udal aurrekontuetan onartuta dagoen diru-kopurua (60.000 euro) batuketa horren emaitzarekin zatituko da.

Ondoren eta entitate bakoitzari dagokiona zehazteko puntuaren balioa entitateak lortutako puntuarekin biderkatuko da.

3. KAPITULUA.

KIROL ENTITATEEK ANTOLATZEN DITUZTEN IZAERA BEREZIKO EDOTA NOIZEAN BEHINGO KIROL-JARDUERETARAKO DIRU-LAGUNTZA.

9. Kirol entitateek aurkeztu beharreko agiriak, izaera bereziko edota noizean behingo kirol-jarduerak antolatzeko diru-laguntzarako.

6. puntuari adierazi diren dokumentuez gain, diru-laguntza ildo honetako eskaerak prestatu den inprimaki ofizialean (inprimakia Agorrosin Ekintza Gunean edota www.bergara.net helbidean egongo da) aurkeztu beharko dira, ondorengo dokumentazioarekin batera:

- a. **Jardueraren kirol-egitasmoa.** Zehaztu beharko da jarduera non egingo den, eguna eta ordua, erabiliko diren material baliabideak eta udal material baliabiderik erabili behar den, beharrezkoak diren udal instalazioak, aurreikusitako parte hartzaile kopurua eta jarduerari buruzko lagungarri gerta daitezkeen bestelako argibideak.
- b. **Jardueraren aurrekontu ekonomikoa.** Atal honetan zehaztu beharko dira aurreikusten diren gastuak eta irteerak, udalari eskatzen zaion diru-laguntza zenbatekoa eta ekintzaren balantze ekonomikoa.

10. Kirol entitateen izaera berezi edo/eta noizean behingo kirol-jarduerak antolatzeko diru-laguntzarako irizpideak.

Bergarako Udal Kirol Batzordeak urte horretako eskaera guztiak aztertuko ditu. Beharrezkoa izan daitezkeen kasuetan, eta izaera bereziko jardueren konplexutasuna dela-eta, hainbat kirol entitateri argibide eta agiri gehiago eskatzeko aukera izango du. Azterketa ostean, jarduera bakoitzerako urteko diru-partidaren arabera banaketa egingo du.

4 KAPITULUA.

APLIKAZIO OROKORREKO BESTE PUNTU BATZUK.

11. Eskaerak aurkezteko agirien prozedurari buruz.

- Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak bere horretan onartzen dituela.
- Eskatutako dokumenturen bat jadanik Bergarako Udalaren esku balego, diru-laguntzaren eskatzaileak ez du dokumentu hori aurkeztu beharrik izango, betiere eskaeran adierazten bada zein egunetan aurkeztu zen eta zein organori edo zein bulegotan izan zen, eta ez badira bost urte baino gehiago igaro dagokien prozedura bukatu zenetik. Hala ere, dokumentua lortzeko ezintasun materiala balego, organo eskudunak dokumentua erabaki-proposamenaren formulazioa baino lehen aurkezteko eska dezake.

12. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00era, aurkeztu ahal izango dira, Udaletxeko Erregistro Orokorrean, oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita 30 eguneko epean.

Eskaerak aurkezteko epea larunbat, igande edo jaiegunean amaituko balitz, epea ondorengo laneguneko 13:00ean bukatzen dela ulertuko da .

13. Erabakia

Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, eskaerak Udaleko Kirol batzordeak aztertuko ditu. Eskaeran akatsak daudenean edota agiriren bat falta denean, jakinarazpen bat egingo zaio, esanez 10 eguneko epea duela, jakinarazpena egiten zaionetik kontatzen hasita, falta den agiria

aurkeztu edota akatsa konpontzeko. Horrela egingo ez balu, diru-laguntza eskaeran atzera egin duela ulertu eta artxibatu egingo da beste tramiterik gabe, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, bere 71.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Azkenik, Departamentuak txosten teknikoa egin ondoren, Kirol batzordeak diru-laguntzak emateko proposamena egingo dio Alkateari, hark erabakia har dezan.

Erabakia eskaerak aurkezteko epea bukatu eta, gehienez, hiru hilabeteko epean eman beharko da.

Hiru hilabeteko epe hori igaro ondoren, Udalak eskaeraren baten gainean erabakirik hartu ez badu, eskaera ez dela onartu ulertu ahal da.

Udalak, batzorde informatzailearen bitartez, beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du erabaki-proposamena formulatu aurretik.

14. Onuradunen betebeharrak

Onuradunaren betebeharrak honakoak dira:

- a. Diru-laguntzaren arrazoi diren jarduerak egin edota helburuak betetzea.
- b. Diru-laguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Bergarako Udalaren aurrean justifikatzea.
- c. Indarrean den legedian xedatutakoarekin bat, Bergarako Udalak egingo dituen egiaztatze-ekintzei men egitea eta haiek egiten laguntzea, bai eta kontrol organoek egin dezaketen edozein egiaztatze- edo kontrol-ekintza erraztea. Aipatutako ekintza horiek gauzatzeko, eskatzen den informazio guztia eman beharko da.
- d. Diru-laguntza jasotzeko kontuan hartu zen edozein egoera objektiboren edo subjektiboren aldaketa jakinaraztea.
- e. Bergarako Udalari, berak lagundutako jarduera berberengatik jaso den, beste diru-laguntza nahiz publiko nahiz pribaturen berri ematea.

Horren berri jakin bezain laster egin beharko da komunikazio hori eta, edozein kasutan, Udaletik jasotako fondoan erabilera justifikatu aurretik.

- f. Ordaindutako diru-laguntza itzultzea oinarri hauen arabera, betebehar hori sortzen denean.
- g. Jasotako fondoeraren erabilerari buruzko egiaztagiriak, gutxienez, bost urtez gordetzea.
- h. Kontabilitate liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiriak ikuskatuak izatea, kasu bakoitzari aplikatzekoa den merkataritzari eta sektoreei buruzko legedian xedatua den moduan. Halaber, diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri hauetan eskatutako **kontabilitateko egoera orri eta erregistro espezifiko oro izan** beharko dira egunean aurkezteko prest.
- i. Udalak euskararen erabileraren inguruan ezarritako irizpideak betetzea. Diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeak euskarari lehentasuna eman beharko dio jarduerari buruzko publizitatea egitean. **Hizkuntzaren aldetik**, baldintza hauek bete beharko ditu:
 - a. **Mezu idatziei** (kartel, iragarki, esku-programa, liburuxka...) dagokienez, euskaraz edo ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz) idatziko dira. Beti eduki beretsuak izan ohi dituztenak euskara hutsez, eta ele bietan egiten direnen kasuan, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean) eta bai neurriaren aldetik ere. Testuak, hizkuntza aldetik, zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman beharko dira.
 - b. **Ahozko komunikazioetan** ere euskara hutsa erabiltzera joko da eta bi hizkuntzak erabili behar izanez gero, euskarari emango zaio lehentasuna erdarakoaren aurretik azalduz eta, mezua errepikatzen denean, erdarazkoa baino bi aldiz sarriago, behintzat, emanez.
 - c. **16 urtez azpikoei** zuzendutako mezu guztiak (idazki, hitzaldi, saio eta abar) **euskara hutsezkoak** izango dira.
- j. Diruz lagundutako jarduera garatzeko beharrezko diren baimen guztiak lortzea, eta haiei dagozkien zehaztapenak betetzea.
- k. Gipuzkoan, Eskola Kirolaren arloan indarrean den araudia betetzea.
- l. Jarduera garatzeko orduan, pertsonen oinarritzko eskubideak errespetatzea.
- m. Diruz lagundutako edozein jardueraren antolatzailek honako **betekizun hauek** ditu:

- a. Idatzizko, ahozko eta irudizko **publizitatean** agerraraztea Bergarako Udalaren laguntza jaso dela, Bergarako Udal Kirol Zerbitzuaren **logotipoak jarritz**.
- b. Idatziz Udalari jakinaraztea, ekitaldia aurkezteko prentsaurrekoaren eguna, ordua, eta lekua, eta han parte hartzeko dagokion gonbidapena egitea.
- c. Idatziz Udalari jakinaraztea ekitaldiaren ordutegia, eta hara joateko dagozkion akreditazioak eta gonbidapenak bidaltzea, sariak zer ordutan banatuko diren zehaztuta.
- n. Onuradunek indarrean dagoen lege araudia guztia betetzea, batez ere **Emakume eta Gizonezkoen berdintasunerako 3/2007 Legea** eta baita **Tabakoari buruzko 28/2005 Legea -abenduaren 26koa-** ere, udal instalazioak erabiltzen direnean.
- o. Oinarri hauetako gainerako betekizunak betetzea; indarrean den legedian xedatu direnak; eta ebazpenen edukiaren ondorioz sor daitekeen edozein betekizun.

15. Diru-laguntza ordaintzeko modua

Onartutako diru-laguntza bi ordainketa bidez egingo da.

Diru-laguntza 3.000 € baino txikiagoa denean, diru-laguntza onartzen denetik kontatzen hasita, hilabeteko epean diru-laguntzaren %60 ordainduko da.

Diru-laguntza 3.000 € edo handiagoa denean Udalarekin hitzarmena sinatu beharko da. Hitzarmena sinatzen denean diru-laguntzaren %60 ordainduko da. Hitzarmena sinatzeko hilabeteko epe hori igarota diru-laguntzaren onuradunari lepora dakiokkeen arrazoiren bategatik ez balitz hitzarmena sinatuko, elkarrekin diru-laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

Diru-laguntzaren beste zatia (%40) jasotzeko ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira **2008ko abenduaren 1a baino lehen**, edo urte naturalekoa denean 2009ko urtarrilaren 15a baino lehen, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean:

Eskaera egitean oraindik burutzeko zeuden jardueren eta diruz lagundu diren ekintzen memoria, balantze ekonomikoa eta abar; hau da, oinarri hauen 5. puntuko k) eta l) puntuetan jasotako dokumentazioa

16. Diru-laguntzen konkurrentzia

Udalak emandako diru-laguntza bateragarria da helburu berarengatik jasotako beste edozein diru-laguntzarekin.

Hala ere, diru-laguntza ezin izango da izan, beste diru-laguntza batzuekin edo laguntza, diru-sarrerekin batera zein ez, lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen zenbatekoa garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa bada, onuradunak garatutako jardueraren kostutik gora dagoen zenbatekoa itzuli beharko du. Bi administrazio edo gehiagoren diru-laguntzek bat eginez gero, atal honetan aipatzen den soberakina izanez gero, laguntza horietan emandako kopurua banaketa proportzionala eginez aplikatuko da itzulketa.

17. Diru-laguntza aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, betiere, laguntza honekin batera beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik jasotako diru-laguntzak aldatzen badira, emakidaren erabakia aldatzea gerta daiteke.

18. Diru-laguntza ezeztatuta, diru-itzulketak

1. Jarraian azaltzen den egoeraren bat gertatuz gero, jasotako diru-kopurua eta diru-laguntza jaso zen unetik **itzulketa** egin behar dela erabakitzen den unera bitarteko berandutze-interesak itzuli beharko dira:
 - a. Jasotako funtsak nora bideratu diren frogatu ez izana zehaztutako modu eta epean.
 - b. Eskatutako dokumentazio guztia ez aurkezteak diru-laguntzarik ez ematea ekarriko du. Bide batez, datuak ezkutatu edota faltsifikatzeak diru-laguntza horiek jasotzeko eskubidea galtzea eragingo du.
 - c. Diru-laguntza ematean onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
 - d. Diru-laguntzaren helburua erabat edo zati batean ez betetzea.
 - e. Organo eskumendunek egin beharreko kontrol-ekintzei ezetza ematea edo oztopoak jartzea.

2. Baldin kudeatze-, ikuskatze- eta kontrol-prozeduretan ikusten bada emandako diru-laguntza edo laguntza modu desegokian, jaso, baliatu eta erabili dela adierazten duen zantzurik, horren berri emango da dagokion espedientean, eta beharrezkotzat jotzen diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

19. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazio eta garapenean sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu, Kirol batzordeak egindako proposamena ikusita.

20. Erregimen juridikoa

Oinarri hauetan aurreikusi gabe daudenetarako, ondorengo lege eta arautegiak aplikatuko dira:

- Ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena.
- Azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Arautegia, legea garatzen duena.